



**Euskaltelek itzultako eta  
ekoiztutako eskuliburua**



Xiaomi 12 Lite  
Gida azkarra



## Eskerrik asko Xiaomi 12 Lite aukeratzeagatik

Luze sakatu pizteko/itzaltzeko botoia, gailua pizteko.

Jarraitu pantailan agertzen diren argibideei gailua konfiguratzeko. Informazio gehiago lortzeko, bisitatu gure webgune ofiziala:

[www.mi.com/global/service/userguide](http://www.mi.com/global/service/userguide)

## MIUI

Xiaomi 12 Lite gailuak MIUI du aurrez instalatuta, Androiden oinarritutako gure sistema eragile pertsonalizatua. Eguneraketak sarri egiten ditu, eta funtzio erabilerrazak ditu, munduko 200 milioi erabiltzaile aktibok baino gehiagok egindako iradokizunei esker. Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi [en.miui.com](http://en.miui.com).

## SIM dualari buruz:

- SIM txartel dualak onartzen ditu operadore-mugarik gabe, eta 5G konexio bikoitza ①
- Nano-SIM txartel dualentzako artekak onartzen ditu; bi txartel etako edozein konfiguratu daiteke txartel nagusi gisa
- Bateragarria da 5G/4G/3G/2G SIM dualarekin
- VoLTE onartzen du SIM dualarekin ②

① oharra: 5G konexioa izatea herrialdearen, operadorearen eta erabiltzailearen ingurunearen araberakoa da. ② oharra: VoLTE zerbitzuaren erabilgarritasuna telekomunikazio-operadore lokalaren sarearen eta zerbitzuaren ezarpenaren mende dago.

- Ez sartu SIM txartel ez-estandarrik SIM txartelentzako erretenean. Kalteak eragin ditzake SIM txartelentzako erretenean.
- ABISUA: Ez desmuntatu gailu hau.

## WEEE



Produktu hau modu seguruan botatzeko, neurri bereziak hartu behar dira. Ikur honek adierazten du, EEn, produktua ez dela bota behar etxeko ohiko hondakinekin.

Hondakinak desegoki botatzeagatik ingurumenari eta gizakien osasunari kalterik ez eragiteko eta baliabide materialen

berrerrabilpen jasagarria sustatzeko, birziklatu arduraz.

Gailua modu seguruan botatzeko, erabili bilketa- eta itzultze-sistemak edo jarri harremanetan produktua erosi zenion saltzailearekin.

Gure Ingurumen Deklarazioa ikusteko, sartu esteka honetan:

[www.mi.com/en/about/environment](http://www.mi.com/en/about/environment)

## KONTUZ

BATERIA DESEGOKI BATEKIN ORDEZTUZ GERO, LEHERTZEKO ARRISKUA DAGO.

ERABILITAKO BATERIAK BOTATZEKO, HARTU AINTZAT JARRAIBIDEAK.



Entzumenari kalterik ez egiteko, ez erabili gailua bolumen oso altuan denbora luzez.

Segurtasun-informazioa eta neurri osagarriak esteka honetan dituzu: [www.mi.com/en/certification](http://www.mi.com/en/certification)

## Segurtasunari buruzko informazio garrantzitsua

Irakurri hemen jasotzen den segurtasun-informazio guztia gailua erabiltzen hasi aurretik.

- Baimendu gabeko kableak, egokigailuak edo bateriak erabiliz gero, suteak, leherketak edo bestelako arriskuak gerta daitezke.
- Zure gailuarekin bateragarri diren osagai baimenduak bakarrik erabili.
- Gailu honen funtzionamendu-tenperatura 0 °C eta 40 °C bitartekoa da. Aipatutako tenperatura-tarte horretatik gora edo behera erabiltzen baduzu gailua, kalteak eragin diezazkiokezu.
- Zure gailuak bateria badakar berekin, ez saiatu hura ordezten, kalterik ez eragiteko bateriari edo gailuari berari.
- Gailua kargatzeko, gailuarekin emandako eta baimendutako kablea eta egokigailua bakarrik erabili. Beste egokigailu batzuk erabiliz gero, suteak edo deskarga elektrikoak gerta daitezke, edo kalteak jasan ditzakete gailuak edo egokigailuak berak.
- Kargatzen amaitu ondoren, deskonektatu egokigailua, bai gailutik eta bai korrante-hargunetik ere. Ez edukia gailua kargatzen 12 ordu baino gehiago.
- Birziklatu bateria, eta, botatzekotan, ez bota etxeko ohiko zaborrarekin batera. Bateria behar bezala erabiltzen ez bada, sute bat edo leherketa bat gerta daiteke. Gailua, bateria eta osagaiak botatzeko edo birziklatzeko, jarraitu tokiko araudiei.
- Ez desmuntatu, ez kolpatu, ez zanpatu eta ez erre bateria. Bateria deformatuta badago edo kalteren bat badu, utzi erabiltzeari berehala.
  - Ez eragin zirkuitulaburrik baterian, horrek gehiegi berotzea eta erredurak edo bestelako zauriak eragin bailitzake.
  - Ez jarri bateria oso tenperatura altua dagoen lekuetan.
  - Gehiegi berotuz gero, leherketaren bat gerta daiteke.
  - Ez desmuntatu, ez kolpatu eta ez zanpatu bateria, horrek bateriako likidoa jariatzea edo bateria gehiegi berotzea edo lehertzea eragin bailitzake.
  - Ez erre bateria, horrek suteak eta leherketa eragin bailitzake.
  - Bateria deformatuta badago edo kalteren bat badu, utzi erabiltzeari berehala.
- Erabiltzaileak ez du bateria kendu edo aldatu behar. Fabrikatzailearen konponketa-zentro baimendu batek bakarrik desmuntatu edo konpondu behar du bateria.
- Eduki ezazu gailua lehor.
- Ez saiatu gailua zure kontura konpontzen. Gailuaren atalen bat ez baldin badabil behar bezala, jarri harremanetan Mi-ren bezeroarentzako arreta-zerbitzuarekin, edo eraman gailua konponketa-zentro baimendu batera.
- Beste gailu batzuk konektatzeko, jarraitu haien eskuliburuetak jarraibideei. Ez konektatu gailu honekin bateragarria ez den gailurik.
- AC/CC egokigailuek korrante-hargunetik hurbil egon behar dute, eta erraz irteteko moduan.



## Segurtasun-neurriak

- Errespetatu itzazu, egoera edo inguru espezifikotan, telefono mugikorraren erabilera mugatzen duten lege edo arau aplikagarri guztiak.
- Ez erabili telefonia leku eta egoera hauetan: gasolindegietan, atmosfera leherkorra dauden lekuetan, leherketak gerta daitezkeen lekuetan, hala nola zerbitzuguneetan, itsasontzi-bizkarren azpian, erregaiak edo produktu kimikoak lekualdatzeko edo gordetzeko instalazioetan edo aireak produktu kimikoak edo partikulak (alea, hautsa edo hauts metalikoa) dituen lekuetan. Kasu egin haririk gabeko gailuak (hala nola zure telefonia edo beste irrati-ekipo batzuk) deskonektatzeko dioten seinaleei. Itzali zure telefono mugikorra edo haririk gabeko gailua leherketa-eremu batean bazaude edo "bi noranzkoko irrati-aparatuak" edo "gailu elektronikoak" itzaltzeko agindua ikusten baduzu, izan daitezkeen arriskuak saihesteko.
- Ez erabili telefonia ebakuntza-geletan, larrialdiko geletan edo erietxeetako arreta intentsiboko unitateetan. Bete, beti, ospitaleetan eta osasun-zentroetan indarrean dauden arauak. Gailu mediko bat baldin baduzu, kontsultatu zure medikuarekin eta gailuaren fabrikatzailearekin, ea arriskurik dagoen telefonoak gailu medikoaren funtzionamendua eragozteko. Interferentziarik egin ez dezan taupada-markagailuarekin, utzi 15 cm-ko distantzia gutxienez telefono mugikorraren eta taupada-markagailuaren artean. Horretarako, telefonia taupada-markagailuaren kontrako belarrian erabili daiteke, telefonia bularreko poltsikoan eraman gabe. Ekipo medikoarekin interferentziarik ez egiteko, ez erabili telefonia audifonoetatik, inplante koklearretatik edo antzeko gailuetatik hurbil.

- Errespetatu aire-segurtasuneko arau guztiak, eta itzali telefonoa hegazkinean, beharrezko denean.
- Ibilgailu bat gidatzen ari zarenean, erabili telefonoa indarrean dauden trafiko-legeak eta -arauak kontuan hartuta.
- Ekaitza denean, tximistaren batek jotzea saihesteko, ez erabili telefonoa kanpoan.
- Telefonoa kargatzen ari baldin bada, ez erabili deiak egiteko.
- Ez erabili telefonoa oso leku hezeetan; esate baterako, bainugelan. Erabiliz gero, deskarga elektrikoak, lesioak edo suteak gerta daitezke, eta kalteak jasan ditzake kargagailuak.

## Segurtasun-deklarazioa

Mesedez, eguneratu telefonoaren sistema eragilea; horretarako, erabil ezazu sistema eguneratzeko funtzioa, edo zoaz gure saltoki baimendu batera. Softwarea eguneratzeko beste bideren bat erabiltzen baduzu, besteak beste, gailuari kalte egin dakioko, datuak galdu ditzakezu eta segurtasun-arazoak izan ditzakezu.

## Lege-informazioa

Gailu hau EBko estatu guztietan erabili daiteke. Kontsultatu gailua erabiliko duzun tokiko arauak, tokikoak nahiz estatukoak.

5150 - 5350 MHz-eko maiztasun-mailan, eraikinen barruan bakarrik erabili daiteke gailua, herrialde hauetan:

AT	BE	BG	HR	CY	CZ	DK	
EE	FI	FR	DE	EL	HU	IE	
IT	LV	LT	LU	MT	NL	PL	
PT	RO	SK	SI	ES	SE	UK(NI)	
IS	LI	NO	CH	TR			

2,4 GHz-eko bandaren mugak:

Norvegia: Azpiatal hau ez da aplikagarria Ny-Ålesundeko zentrotik 20 kilometrorainoko erradioaren barruko eremu geografikoan.

Ziurtatu korrante-egokigailuak IEC/EN 62368-1eko 6.4.5 klausulako baldintzak betetzen dituela, eta tokiko eta estatuko araudiaren arabera probatu eta onartu dela.

## Erantzukizunen deskargua

Erabiltzailearen eskuliburu hau Xiaomik edo haren tokiko filialak argitaratu du. Xiaomik beharrezkoak diren hobekuntzak eta aldaketak egin ditzake Erabiltzailearen eskuliburu honetan, edozein unetan eta aurrez jakinarazi gabe, arrazoi hauengatik: akats tipografikoak, informazioaren zehaztasunik eza edo programen eta ekipoen hobekuntzak. Hala ere, aldaketa horiek eskuliburu honen hurrengo onlineko edizioetan sartuko dira (ikus xehetasun guztiak helbide honetan: [www.mi.com/global/service/userguide](http://www.mi.com/global/service/userguide)).

Irudi guztiak erreferentzia gisa erabiltzeko dira; baliteke esku artean duzun telefonoaren berdinak ez izatea.



FR

Cet appareil,  
ses accessoires  
et cordons  
se recyclent

À DÉPOSER  
EN MAGASIN



OU

À DÉPOSER  
EN DÉCHÈTERIE



Points de collecte sur [www.quefairedemesdechets.fr](http://www.quefairedemesdechets.fr)  
Privilégiez la réparation ou le don de votre appareil !

Manufacturer's Authorized EU Representative

Name: Xiaomi Technology Netherlands B.V

Address: Prinses Beatrixlaan 582, 2595BM, The Hague, The Netherlands

Manufacturer: Xiaomi Communications Co., Ltd.

Manufacturer postal address:

#019, 9th Floor, Building 6, 33 Xi'erqi Middle Road,

Haidian District, Beijing, China, 100085

Brand: Xiaomi Model: 2203129G

© Xiaomi Inc. All rights reserved.

